

2. PROBLEMEN KONTROLA

Izen abizenak: _____

Data: _____

1. Paulek 11 urte ditu, eta haren aitak 35 gehiago. Zenbat urte izango ditu aitak Paulek orain duen adinaren halako bi duenean?
2. Film batek 2 ordu eta 35 minutuko iraupena du. Landerrek 97 minutu ikusi ditu. Zenbat denbora falta zaio film osoa ikusteko?
3. Gela batean zorua jarri behar da, ohol karratu ahalik eta handienak erabiliz. Gela 12 m luze eta 10 m zabal bada, zer luzera izango dute laukien aldeek?
4. Ainara gaixo dago, eta sendatzeko botikak hartu berri ditu. Pilula bat hartu behar du 6 ordutik behin, eta jarabea 18 ordutik behin. Oraitxe biak hartu baditu, zenbat ordu barru hartuko ditu berriro biak batera?